



Aiaga

etxebizitza

Aldakerak:
Ahozkoa:

43° 10' 57"

2° 35' 41"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Aiagalde (**Ikus Aiagalde**) eraiki eta urte batzuetara, 1982an, eraikitako bizitza biko txaleta dugu. Hasieratik parajearen izena hartu zuen: *Aiaga. Gangutienazpikoa* (**Ikus Gangutienazpikoa**) baserriaren lurretan eraiki zuten.

XX. mendeko 80ko hamarkadan egindako bizitza biko txaleta da. Guztiz modu simetrikotan eratutako fatxada bat dauka, isurki biko teilatuaren azpian. Sarrerako atarteak erdialdean daude, guztiz berezita. Horien aldamenetara,

leiho txiki bat eta lurreraino doan leiho luze eta zabal bat dauzka. Lehenengo solairuan, leiho luzeak daude lerrokatuta, eta erdialdean, zertxobait aurreratuta, begiratoki bana eta balkoia. Ganbara aldean, teilatuaren formara egokitutako leihoak ditu. Luzitutako hormen kontrapuntua egur ilunezko pertsiak egiten dute.

toponimia

Euskal Herria osoan ditugu Aia osagaia duten leku izenak, ezagunean Ataungo auzoa, eta Añibarrori esker dakigu esan-gura "aldatsa" dela. Kasu honetan leku adiera duen aga atzizkiak lagunduta ageri da